

Errepideen digitalizazioan eta jasangarritasunean jauzi berri bat egitearen aldeko apustua egin du Gipuzkoak



Gaurko jardunaldian Astigarraga-Oiartzun Garraio Zentro Integrala eta bere balio erantsia aurkeztu dira, sektoreko eragileen eta enpresen aurrean.

Astigarragako Garraio Zentro Integralak Europar Batasuneko errepideko garraioaren sektoreari buruzko jardunaldi bat hartu du gaur asteazkena, martxoak 9, Europako erakundeetako arduradunen eta zerbitzuen, logistikaren eta azpiegituren sektoreko adituen parte-hartzearekin. Markel Olano diputatu nagusia eta Aintzane Oiartzabe Bide Azpiegituretako diputatua izan dira Europar Batasuneko salgaien garraioaren errealitatea, beharrak eta etorkizuna kontrastatzea helburu duen jardunaldi honetan.

Markel Olano diputatu nagusiak gogorarazi duenez, Gipuzkoa Europako kontinentearen eta Penintsularen arteko lotura logistikorako "giltzarri" den lurraldea da, eta, honenbestez, «estrategikoa» da lotune gisa "azpiegitura sare moderno, digitalizatu eta jasangarria izatea". "Honela, Garraio Zentroa irekitzearekin batera, Aldundiak lagundu egin nahi izan du ardatz atlantikoko garraio-azpiegitura hobetzen eta zaintzen, aparkaleku seguruak, babestuek eta Garraio Sistema Adimendunekin (ITS) konektatuak eskainiz", Olanok adierazi duen bezala.

Era berean, diputatu nagusiak adierazi du lurraldea, Gipuzkoa Living Lab proiektuaren bitartez, "erabakitasunez" heltzen ari zaiola "mugikortasun eta garraio jasangarriaren etorkizuneko erronkari, errepideen digitalizazioarekin batera". «Garai zailak bizi ditugu, ziurgabetasunez beteak, baita garraioaren sektore honentzat ere, pandemian zehar egiaztatu ahal izan dugunez. Mugikortasuna eta azpiegitura adimendun



eta jasangarriagoak bultzatuz, sektore horri laguntzen ari gatzaizkio", adierazi du Olanok, eta erantsi du Garraio Zentroa prozesu horretan guztian «aurrerakoia» dela.

Jardunaldia Bidegi foru elkarteak antolatu du, Gipuzkoako Ganberaren, ESPORG kamioientzako aparkaleku seguruen Europako elkartearen eta Arup aholkularitzaren laguntzarekin. Astigarraga-Oiartzun Garraio Zentro Integrala bera eta haren balio erantsia aurkeztu ditu sektoreko eragile eta enpresen aurrean. Halaber, topaketan Europako garraio-arduradunak, aparkalekuen Europako elkarte, errepideko garraiolarien Europako elkarte eta logistikaren sektoreko enpresak, garraioak eta Gipuzkoako sektoreko elkarteak izan dira.

Jardunaldiaren lehen hitzaldia EBko errepide bidezko garraio-politikei buruzkoa izan da, eta Inés Ayala Sender EBko Kontseiluaren Europa Barneko Garraio Sareko Rin-Danubio korridorearen koordinatzaileak hartu du hitza. Aurkezpenean, garraiolarien egunerokoan aparkaleku seguruek duten garrantzia azpimarratu du Senderrek. Izan ere, garraiolarien lan-baldintzak hobetu egingo dira, atsedeen hobeari eta seguru jakitearen lasaitasunari esker, bai haiek bai garraiatzen dituzten produktuek.

Hitzaldiez eta mahai-inguruez gain, Izaskun Bilbao eurodiputatuak bideo bidez parte hartu du, garraio politika komunaren garrantziari buruz jarduteko.

Europar Batasuneko errepideko garraioaren sektoreari eskainitako jardunaldi honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak «Gipuzkoa Living Lab: Errepide Adimendunak» egitasmoa aurkeztu du. Nazioarteko proiektu horren bidez, AP-8 eta AP-1 autobideak mugaz gaindiko proba-laborategi bihurtuko dira, eta puntako mugikortasuneko eta teknologiako enpresek beren ibilgailu autonomoak probatu ahal izango dituzte.

Erregai berriak, ibilgailu elektrikoak eta horiek kargatzeko eta autonomia bermatzeko bitarteko eta sistema teknikoen garapena eta etorkizunerako errepideko garraioaren beharrak izan dira topaketan zehar jorratu diren beste gaietako batzuk.

Aparkaleku seguruak

Europako Batzordeak 2019ko otsailean aparkaleku seguruei buruz argitaratutako ikerketaren arabera, errepidea da Europa barruko merkataritzan eta logistikan gehien erabiltzen den garraio-bidea. Tona-kilometro guztien % 50 inguru da, eta lurreko garraioaren % 75. Kargaren proportzio handi bat ibilgailu astunetan garraiatzen da, 40 tonatik gorako edukierakoak, distantzia luzeak egiten dituztenak eta mugaz gaindiko bidaiak egiten dituztenak. Hala, egunero milaka milioi euroko balioa duten salgaiak garraiatzen ditu EBko ekonomiaren bizkarrezurra den Europa Barneko Errepide Sareak.

Kalkuluen arabera, lanegun batean, batez beste, 400.000 kamioi eta gidari aritzen dira Europa osoan distantzia luzeko garraioan, eta gaueko aparkalekua behar dute atsedenerako, gidaldiak eta atsedenaldirako arautzen dituzten arauak aplikatuz.

Dokumentuak nabarmentzen du EBn kamioientzako 5.000 aparkaleku inguru identifikatu direla, eta ibilgailu astunen gaueko atsedenaldirako 300.000 aparkaleku eskaintzen dituztela. Plaza horietatik 47.000k nolabaiteko segurtasuna izango lukete, eta



beste 7.000k ziurtatutako segurtasun-maila. Beraz, 100.000 plaza inguruko defizita dago ibilgailu astunentzako aparkalekuetan, segurtasun-mailak kontuan hartu gabe.

Gaur egun, European instalazio gutxi daude kamioiak segurtasunez aparkatzeko, garraiatzen dituzten salgaien segurtasuna bermatzen dutenak eta gidarien ongizateari eta atsedinari erantzuteko zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Europa osoan aparkaleku seguruak egingo balira, garraiolarien aurkako delinkuentzia- eta ebasketa-tasak murriztu egingo lirateke, eta haien segurtasuna eta ongizatea hobetuko litzateke, hain zuzen, bide-segurtasunari mesede egingo liokeena.

Txostenaren arabera, kamioiak aparkatzeko eremu seguruen sare trinkoagoa ezartzearekin batera, aparkaleku horiek ITS garraio-sistema adimendunekin konektatu behar dira, aparkalekuan plaza erreserbatzeko aukera eman ahal izateko. Aparkaleku-sareak mesede egiten die gidariei, garraio-enpresei, igorleei eta aseguru-etxeei, baita gizarteari ere, produktuen hornidura egokia bermatuz.

Zarautz, 2022/03/09

Gipuzkoa apuesta por dar un salto en la digitalización y sostenibilidad de las carreteras



La jornada ha servido para presentar el Centro Integral del Transporte Astigarraga-Oiartzun y su valor añadido a la sociedad ante diferentes agentes y empresas del sector.

El centro integral de transporte de Astigarraga ha acogido este miércoles 9 de marzo una jornada dedicada al sector del transporte por carretera en la Unión Europea, con la intervención de responsables de organismos europeos y personas expertas en el sector de servicios, logística e infraestructuras. El encuentro ha estado presidido por el diputado general Markel Olano, junto con la diputada de Infraestructuras Viarias, Aintzane Oiartzun, y ha servido para someter al contraste de expertos y expertas la realidad del mundo de transporte de mercancías en la Unión Europea, sus necesidades y su futuro.

Según ha recordado el diputado general, Markel Olano, Gipuzkoa es un territorio “bisagra” para la conexión logística entre el continente europeo y la Península, por lo que resulta “estratégico” contar con una “red de infraestructuras moderna, digitalizada y sostenible”. “En ese marco, con la apertura del CIT, la Diputación ha querido “contribuir a la mejora y salvaguarda de la infraestructura del transporte en el eje atlántico”, ofreciendo zonas de aparcamiento “seguras, protegidas y conectadas” con los Sistemas de Transporte Inteligentes (ITS), tal y como ha apuntado Olano.

Asimismo, el diputado general ha afirmado que Gipuzkoa está abordando “decididamente” el desafío de “la movilidad y el transporte sostenibles”, junto con la digitalización de las carreteras, en el marco del proyecto de futuro Gipuzkoa Living Lab. “Vivimos tiempos difíciles, llenos de incertidumbre, también para este sector del transporte, cuya relevancia hemos podido comprobar durante la pandemia. Mediante el



impulso a una movilidad y unas infraestructuras inteligentes y más sostenibles estamos apoyando a este sector”, ha manifestado Olano, quien ha descrito el CIT como “avanzadilla” en todo ese proceso.

La jornada, organizada por la sociedad foral Bidegi con la colaboración de la Cámara de Gipuzkoa, la sociedad europea de aparcamientos seguros para camiones ESPORG y la consultora Arup, ha servido para presentar el Centro Integral de Transporte Astigarraga-Oiartzun y su valor añadido a la sociedad ante diferentes agentes y empresas del sector. El encuentro ha contado con la asistencia de responsables europeos de transporte, de la asociación europea de aparcamientos, de la asociación europea de transportistas por carretera y empresas del sector de la logística, transportes y asociaciones del sector de Gipuzkoa.

La primera ponencia de la jornada ha versado sobre las políticas de transporte por carretera en la UE y ha corrido a cargo de Inés Ayala Sender, coordinadora del corredor Rin-Danubio de la Red de Transporte Transeuropea del Consejo de la UE. En su presentación Sender ha incidido sobre la importancia de los aparcamientos seguros en el día a día de los transportistas, que ven mejoradas sus condiciones laborales gracias a un mejor descanso y a la tranquilidad de saberse seguros, tanto ellos como los productos que transportan.

Además de las diferentes conferencias y mesas redondas, el acto ha contado con la participación, mediante video, de la eurodiputada Izaskun Bilbao, sobre la importancia de las políticas comunes de transporte.

Durante esta jornada dedicada al sector del transporte por carretera en la Unión Europea, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha presentado “Gipuzkoa Living Lab. Carreteras inteligentes” el proyecto internacional por la que las autopistas AP-8 y AP-1 se convertirán en un laboratorio de pruebas transfronterizo donde las diferentes empresas de movilidad y tecnológicas punteras podrán probar sus vehículos autónomos.

Los nuevos combustibles, los vehículos eléctricos y el desarrollo de los medios y sistemas técnicos para su carga y garantizar su autonomía así como las necesidades del transporte por carretera de cara al futuro han sido otros de los temas que se han tratado a lo largo del encuentro.

Aparcamientos seguros

Según el estudio publicado por la Comisión Europea en febrero de 2019 sobre aparcamientos seguros, la carretera es el modo de transporte mayoritario en el comercio y la logística intraeuropea. Representa cerca del 50% de todas las toneladas-kilometro y el 75% del transporte terrestre. Una gran proporción de la carga se transporta en vehículos pesados, con capacidades de más de 40 toneladas que recorren largas distancias y con viajes transfronterizos. Cada día se transportan mercancías por valor de miles de millones de euros por la Red Transeuropea de Carreteras que constituye la columna vertebral de la economía de la UE.



Se estima que un día laborable hay un promedio de 400.000 camiones y conductores dedicados al transporte de larga distancia en toda Europa y que requieren de un estacionamiento nocturno para el descanso en aplicación de las normas que regulan los tiempos de conducción y descanso.

El documento destaca que se han identificado alrededor de 5.000 aparcamientos para camiones en la UE que ofrecen 300.000 plazas de aparcamiento para el descanso nocturno de los vehículos pesados. De estas plazas, 47.000 dispondrían de cierta seguridad y otras 7.000 contarían con un nivel de seguridad certificado. Por lo tanto hay un déficit de alrededor de 100.000 plazas en el número de estacionamientos destinados a vehículos pesados y sin tener en cuenta los niveles de seguridad.

Actualmente existe una escasez de instalaciones a nivel europeo que permitan el estacionamiento seguro de camiones que garanticen la seguridad para las mercancías que transportan y también brinden un nivel de servicios dirigidos a atender el bienestar y el descanso de los conductores. Con el aumento de nuevas zonas de aparcamiento seguras en toda Europa las tasas de delincuencia y hurto que sufren los transportistas se reducirían y la seguridad y bienestar de los transportistas mejorarían lo que beneficiaría a la seguridad vial.

El informe señala que el establecimiento de una red más densa de áreas seguras de aparcamiento de camiones (SSTPA) debe ir acompañado de una interconexión de dichos aparcamientos con sistemas inteligentes de transporte ITS que permita la reserva de plaza en el aparcamiento. La red de aparcamientos beneficia a conductores, empresas de transporte, expedidores y aseguradoras y también a la sociedad garantizando un adecuado suministro de productos.

Zarautz, 2022/03/09